

<p>Texto en euskera para su traducción al castellano, de acuerdo con el punto 3.2 del pliego de prescripciones técnicas (Propuesta técnica a presentar. Traducción de dos textos).</p>	<p>Euskarazko testua, gaztelaniara itzuli beharrekoa, betebehar teknikoetako 3.2 puntuaren arabera (Aurkeztu beharreko proposamen teknikoa. Bi testuren itzulpena).</p>
--	---

La CONSEJERA DE CULTURA (Azkarate Villar): Eskerrik asko.

Hasteko, orain arte hitz egin duten bi taldeek hasieran esandakoaren haritik Jaurlaritzak atzo bertan egin zuen atzoko atentatuaren gaitzespena eta sailburu honek nahiko luke, ahal bada behintzat, hamabiak hamar gutxi ingururako agerraldi hau amaitu eta Gasteizko Udalean kontzentrazioan egoteko modua aurkitzea. Eskertuko nizueke amaitzeko modurik ez baldin badugu eten bat egin, itzuli eta gero jarraitzea.

Hortik aurrera, bai Alderdi Popularrak eta bai Alderdi Sozialistak galdetutakoaren haritik, Alderdi Popularrak askoz xehekiago jarraitu ditu Kontu Epaitegiak leku batean eta bestean esandakoak. Alderdi Sozialistak oro har lau gai nagusi azpimarratu ditu, bi Tenedorari edo elkarte edukitzaileari dagozkionak eta beste bi fundazioari dagozkionak, bere iritziz, oso larriak eta larriak direnak hurrenez hurren, saiatuko naiz oro har lehen erantzun bat ematen.

Hemen hizpide duguna edo agerraldi hau sortu duena, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2007ko ekainaren 14ko bilkuran onetsitako fiskalizazio -txostena da, Guggenheim Bilbao Museoaren fiskalizazioaren txostena. Eta Fiskalizazio-txosten horretan bi alderdi azaltzen dira: batetik, fundazioaren jarduera, 2005ko ekitaldian eta, bestetik, elkarte edukitzaile edo Tenedoraren jarduera 1999-2005 bitarte horretan. Eta jarduera, hain zuzen ere, Tenedora horrek, elkarte edukitzaile horrek erositako artelanei dagokie.

Saiatuko naiz Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenaren eta museoak aurkeztutako alegazioaren alderdirik adierazgarrienak aipatzen. Aldez aurretik asumitzen dut hemen agerraldia eskatu duten alderdiek gehiago ikusiko dutela Kontu Epaitegiaren ikuspegia, baina nik uste dut museoak aurkeztutako alegazioetan argi geratzen dela zergatik jokatu den

horrela eta zer legeren arabera, non kokatzen den fundazioa, non kokatzen den elkarte edukitzaile eta, horren arabera, zertara gauden behartuak eta zertara ez.

Lehenik, fundazioari dagokionez eta legea betetzearen alderdiei dagokienez, beraz, erosteko atera diren kontratuetan zerbitzua esleitzeko egin diren kontratuetan legea nola bete den eta ez den bete azken batean gai nagusia izango litzateke Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio-helmena edo fiskalizazio-esparrua noraino doan. Hori finkatzea izango litzateke gai nagusia.

Ez da inola ere eztabaidatzen fundazioa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fundazioari begiratu behar dion, fundazioa fiskalizatu behar duen ala ez. Hori ez da inola ere zalantzan jartzen, jasotzen dituen diru laguntzak publikoak diren neurrian esparru horretan, baina esparru horretan bakarrik, dudarik gabe. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bete-betean fiskaliza dezake fundazioaren jarduera. Eztabaida da Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Prozeduren arabera, fundazioaren jarduera ere behartuta ote dagoen ala ez. Beraz, fiskalizazioa ez da zalantzan jartzen, zalantzan jartzen dena da, berriro esango dut, Herri Administrazioen Kontratuen Legeak behartzen duen al ez fundazioaren jarduera.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak uste du baietz. Museoak uste du ezetz. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 2.1 artikuluan oinarrituta uste du fundazioak ezetz eta Uria Menéndezen irizpen juridiko batean ere oinarritzen du irizpide hori. Arrazoi nagusia, zein da? Herri Administrazioen Kontratuen Legeak lehen artikuluan eskatzen dituen hiru egoeretako bakar batek ere ez duela eragiten fundazioan. Eta horretan, uste dugu Herri

Administrazioen Kontratuen Legeak oso argi ezartzen duela lehen artikuluan horretan ze egoeratan sar daitekeen edo aplikatu behar den legeak dioena. Eta zein dira hiru egoera horiek? Lehenik % 50 baino gehiago finantziario publikotik etortzea. Horrelako egoera batean dagoen fundazioa, bere funtsen % 50 baino gehiago diru publikoetatik jasotzen duen fundazioa, bete-betean sartzen da Herri Administrazioen Kontratuak lehen artikuluan horretan aurreikusten duenean. 2005ean fundazioak jasotzen zituen dirulaguntza publikoak bere aurrekontuaren % 25era baino ez ziren iritsi. Gainerakoa ekimen pribatutik, patrono

pribatuetatik etorri zen. Beraz, lehen ikuspegi horretatik, Herri Administrazioen Kontratuen Legeak esaten duena ez zaio aplikatzen fundazioari.

Bigarren egoera. Bere kudeaketa administrazioaren kontrolpean egotea, berariaz kontratazioari buruzko erabakietan. Eta egoera hori ere ez da gertatzen fundazioaren kasuan. Ez patronatuan eta ez batzorde exekutiboan, erakundeok ez dugu gehiengorik, ez dugu beto eskubiderik puntu honetan edo bestean kontratazioari dagokionez. Beraz, patronatuan hiru bakarrik gara, hiru kide: udala, foru aldundia eta Jaurlaritza. Eta batzorde exekutiboan, beste horrenbeste. Beraz, bigarren egoera horrek ere ez gaitu Herri Administrazioen Kontratuen Legeak aurreikusten duen esparruan sartzen.

Eta hirugarrena, bere gobernu organoetako kideen erdia baino gehiago administrazioek izendatzea. Eta hau, aurrekoarekin lotua dago. Patronatuan, esan dudan bezala, 37 kideetatik 3 baino ez ditu izendatzen administrazioak, batzorde exekutiboan 10 kideetatik 4. Beraz, horren arabera hartzen dira bigarren puntuan aipatu ditudan erabakiak. Batzuetan gerta daitekeelako barruko arauen arabera, aurreikuspena edo jasota egotea hiru kide edo lau kide besterik izan ez arren administrazioeko kideen onarpena behar dela nahitaez. Kontratuan ez dago horrelako prebisorik. Beraz, ez dugu gobernu-organotan gehiengorik eta, horren arabera, kudeaketa ere ez dago administrazioaren kontrolpean.

Hala eta guztiz ere fundazioak badu kontratatzeke barne prozedura bat. Eta hori argi eta garbi adierazi zuen fundazioak museoak egindako alegazioetan. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen oso antzeko filosofia du. Eta guk hala uste dugu eta hala defendatuko dugu. Horren arabera argitaratzen dira prentsan, ez beharbada aldizkari ofizialean, baina bai prentsan 60.000 eurotik gorako lanak, 60.000 euro horietan BEZa ere barne sarturik. Beraz, 60.000 eurotik gorako lanak, zerbitzuak edo hornidurak kontratatzeke iragarkiak, horiek guztiak prentsan ateratzen dira. Kopurua hortik beherakoa denean ere, 60.000 eurora iristen ez denean ere, gutxienez hiru eskaintza eskatzen dira. Ez da inoiz egiten zuzenean honi ematea, ez da inoiz hala erabakitzen, beti dago lehia edo konkurrentzia: edo prentsaren bidez edo gutxienez hiru eskaintza eskatzen direlako, hain zuzen ere, ditugun baliabideak ahalik eta hobekien baliatu nahi ditugulako.

Kontratuen esleipena lehiaketa publikoan jarraitzen diren antzeko arauen arabera tramitatzen da.

Eta horrekin guztiarekin, fundazioaren iritziz, behar adina begiratuta geratzen dira kontratazio publikoak oinarri dituen publizitate eta lehia printzipioak.

Dena den, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere fiskalizazio-lana egitean fundazioa Herri Administrazioen Kontratuen Legearen agindupean dagoela hartu du oinarritzat. Hor esan dut, guk ez dugu horrela ikusten, eta esan dut zergatik. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beste iritzi bat du. Beraz, hori kontuan izanik, fundazioa Herri Administrazioko Kontratuen Legearen agindupean dagoela kontuan izanik, besteak beste, adierazi ditu Maura jaunak lehen aipatu dituen hainbat kontu.

Fundazioak 418.000 euro gastatu dituela, zerbitzuak eta ondasunak eskuratzeko publizitate eta lehia printzipioak errespetatu gabe. Kontzeptuak Hajek dira: dendarako gauzak hornitzeko hiru kontratu 182.000 euro; erakusketen argiztapen artistikoa 53.000 euro; eta bidaiak 183.000 euro. Beraz, 418.000 euro horiek 3 kontzeptutan daude. Batetik, 3 kontratu dendarako gauzak hornitzeko, erakusketen argiztapen artistikoa –lehen Maura jaunak esan du zerbait horretaz- eta bidaiak. Fundazioaren kontratazio-prozeduraren arabera, kanpoan geratzen dira gero dendan edo liburu-dendan saltzeko ondasun-horniketak, eta ondasun horiek erosteko eta hornitzaileak hautatzeko merkataritza-irizpide hertsia jarraituko dira. Hori da fundazioak esaten duena. Zergatik? Bada, eragiketaren ezaugarriak kontuan izanda, dendan, liburu-dendan saltzeko ondasunez ari garela kontuan izanda eta bezeroen eskaerari eta salmenta aukerari erantzun behar zaiola kontuan izanda, uste dugu hori bateraezina dela publizitate eta lehia printzipioarekin.

Hor, azken batean, kontuan izan behar da merkataritza-irizpideak eta bezeroak zer motatako produktuak edo salgaiak eskatzen dituen. Erakusketen argiztapen-zerbitzuei eta bidaiari dagokienez, fundazioak lehiaketa publiko bana deitu zuen bi zerbitzu horiek esleitzeko: 2005eko maiatzean eta azaroan. Beraz, hor lehiaketa publikoa deitu zen bai argiztapen zerbitzuen kasuan eta bai bidaien kasuan.

Bestetik, esaten da fundazioak 486.000 euroko gastuak eta inbertsioak esleitu zituela publizitatearen printzipioa bete gabe eta lehiaketa, hain zuzen ere, eskaintzen eskaera mugatuko prozedura bitartez eginez. Horrek esan nahi du hainbat enpresari proposamenak aurkezteko eskatu zaiela iragarkiak argitaratu gabe. Bueno, lehen esan den bezala, fundazioa ez dago Herri Administrazioen Kontratuen Legeari lotuta. Baina hala egongo balitz ere, publizitate eta lehia printzipioak errespetatu baino ez lituzke egin behar, eta Administrazio Kontratueterako Kontsulta Batzordearen dotrinaren arabera –eta komatxoan artean aipatuko dut- horrek ez du inola ere esan nahi Herri Administrazioen Kontratuen Legeak publizitateari eta lehiari buruz emandako arau zehatzen mende egotea. Izan ere, legelariak hori lortu nahi izan balu, berariaz jasoko zuen hala izan behar zuela. Alderantziz da, beraz, enpresak berak erabaki beharko du zein den horiei eraginkortasuna emateko modurik egokiena eta horretarako ez da beharrezko izango legean jasotako arau zehatzetara jotzea. Eta berriro diot, hau esan

duena Administrazio Kontratueterako Kontsulta Batzordea da, ez fundazioa eta ez herri administrazioa

. Horrenbestez, fundazioak ezarritako formulak, gutxienez 3 eskaintza eskatzekoak, behar adina bermatzen ditu, fundazioaren

irritziz eta herri administrazioen irritziz, publizitate eta lehia printzipioak. Beste irregulartasun horietako bat: zerbitzu kontratu baten lizitazioa, 250.000 eurokoa, ez zela Europako Erkidegoaren Aldizkari Ofizialean argitara eman, Europako Erkidegoaren Zuzentarauen arabera, ezargarri diren muga ekonomikoak gainditzen baditu ere. Herri Administrazioen Kontratuen Legeari, Kontratuaren Legearen aplikagarritasunari buruz jadanik esandakoaz gainera, hau da, ez litzatekeela fundazioaren jardura lege honen eremuan sartuko, nabarmendu behar da kontratu hori Europako aipatutako zuzentarau horiek Espainiako legera pasatu aurretik sinatu zela eta, ondorioz, indarrean sartu aurretik. Beraz, Herri Administrazioen Kontratuen Legea aplikatuta ere, kontratu hori egin zenean, Europako zuzentaraua ez zegoen hemen indarrean, ezinezkoa zen hori betetzea orduan.

Gai horiez gainera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak kontratuen betearazpenaren jarraipenari buruzko hainbat ohar jasotzen ditu. Baina, berez, eta hor sartzen dira Maura jaunak aipatu dituen hainbat, berez gomendioak baino ez dira. Eta zuk zeuk esan duzu Kontu Epaitegiak "egokiago irizten dio, bidezkoago ikusten du...", horiek gomendioak dira, ez dira beharrez bezala egindako kontratazioen barruan sartzen. Beraz, gomendioak dira, ez dira salbuespentzat edo fundazioaren jardueran izandako irregulartasuntzat jo behar. Alde horretatik, fundazioak alegazioetan Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskatu zion komentario horiek kentzeko azken txostenetik, uste delako okerreko interpretazioak sor ditzaketela eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iskalizazio lanean urrunegi joatea litzatekeela.